

# 6

## *Diglosiaren purgatorioaz iruzkin kritikoa*

**Paula Kasares**

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle elkartua*

paula.kasares@unavarra.es

Sarrera-data: 2011-06-24 | Onartze-data: 2011-07-30

**Laburpena.** Euskarak bere lekua behar du baina, nola irudikatu hizkuntzak bere-berea behar duen leku hori? Diglosia kontzeptuaren oinarrian dagoen konpartimentazio hierarkikoa eta hizkuntza funtzioen irudikapen dikotomikoa arazotsua gertatzen zaizkit orain eta hemen euskarak ezinbertez behar dituenak zehazteko. Eta bertikalki antolatzen den funtzio segida ordeztu, euskaldunok geure erdigune eta erreferentzia osoa atxikiko genukeen harreman sare, zirkuitu, sistema, ibilbide... edo nolana ere eratu behar duen irudikatuko bagenu? Diglosia ez bertze kontzeptu eta formulazio batzuetan sakontzea interesgarriagoa iruditzen zait egungo egoera azaldu eta gure premia soziolinguistikoak adierazteko. • *Hitz-gakoak: diglosia, euskara, hizkuntza plangintza.*

**Abstract: critique on the purgatory of diglossia.** Basque has to have its place, but how is one to envisage that place which the language needs to have? I find the hierarchical compartmentalisation underpinning the concept of diglossia and the dichotomous representation of language functions problematic when it comes to specifying what Basque has to have here and now. And if instead of a succession of functions organised vertically, what if we Basques were to imagine a network of relations, a circuit, a system, a route, etc. to maintain our core and complete reference, or a mould that we could organise in whatever way we wanted? I think it would be more interesting to go deeper into other concepts and formulations rather than diglossia to explain the present situation and our sociolinguistic needs. •

*Key Words: diglossia, basque, language planning.*

Mikel Zalbideren “Diglosiaren purgatorioaz” artikulua gure artean ohikoa ez den saiakera teorikoa da. Alde batetik, gure tradizio soziolinguistikoan usua den diglosia hitzaren bilakabide semantiko bihurria ekarri du argitara. Bertze aldetik, Zalbidek teoria soziolinguistikoa oinarri hartuta (Joshua A. Fishman 1991, batik bat), tesi honen alde egin du: euskarak belaunetz belauneko jarraipena ziurtatuko dion diglosia modu bati, konpartimentazio territorial eta /edo soziofuntzional molde bati, eutsi behar dio.

Artikulugilearen asmo argitzaileari dagokionez, borobila iruditu zait marraztu duen ibilbidea gure artean jorratu den diglosia hitzaren errobarak ezagutzeko. Argitze terminologikoa argitze kontzeptuala da eta edozein jakintza arlok garbi eta zehatzak behar ditu erabiltzen dituen kontzeptuak iritzi trukean aritzen garenok elkarri ulertuko badiogu eta eztabaida zientifikoan, eta ez funtsik gabeko burutapen lauso eta antzue-tan, ariko bagara. Diglosia bere adiera tekniko zehatz eta estutik alden-du eta diskurtso soziolinguistiko teoriko arruntan eta bereziki, herri kata-lanetako diskurtso politiko-ideologikoan jabetu zen edukari lotuta era-biltzen da gurean. Bihurrikeria semantiko hori ulergarria da, nire irudi-kotz, euskararen eta erderen arteko botere asimetriari izendatzeko hitzez gabeturik baixeuden. Diglosiak euskararen menpeko eta morrontzako izateari nolabait errateko premia asebeste zuen. Ez genuen (eta ez dugu egun ere) bertze hitz hoberik, zangoperatuta egonda, geure emantzipazio eta burujabetasun sozio(politiko)linguistikoaren beharraz jarduteko.

Baina alor zientifiko batean ari garela sinetsirik eta diglosiaren adiera zientifikoari loturik, gure egungo egoerari ezin zaio diglosia iritzi. Hori aski garbi utzi du Zalbidek. Bertze kontua da, eztabaida semantikoaz ha-ratago eta egungo egoera diglosikoa ez dela argituta, Zalbidek mahai gainean paratu duen tesia: euskarak, orain eta hemen, nolabaiteko diglosia behar duela hizkuntzak bizirik iraunen badu.

Txostengilearekin ados egonda egun dugun egoera soziolinguistikoa azaltzeko diglosia ez zaigula baliagarria, aldiz zalantzak ditut geure *desideratum* soziolinguistikoa kontzeptu horretara bildu behar dugunetz.

Diglosiaren egokitasunaren mataza askatzeko proposatu digun ibilbidearen abiapuntua Koldo Mitxelenak 1977an erdaraz idatzitako lerro batzuk dira. Hona hemen urte bat beranduago euskaraz argita-ratutako itzulpena:

Gure herriak herri artean bere tokia behar duen bezala, hizkuntzak ere berea aurkitu behar du hizkuntz artean: handikeriazko menturarik gabe, iraupena eta hazkuntza segurtatzeko behar adinako tokia (...) diglosiaren purgatorioetatik ihesi goazela ez gaitezela ghe-

---

***Txostengilearekin ados egonda egun dugun egoera soziolinguistikoa azaltzeko diglosia ez zaigula baliagarria, aldiz zalantzak ditut geure desideratum soziolinguistikoa kontzeptu horretara bildu behar dugunetz.***

---

**Hiztun talde  
bateko  
belaunaldi  
bakoitzak kide  
berriak (ahal den  
gehienak) bere  
hizkuntzan  
sozializatzeko  
dituen bide-  
aukerak ez dira  
familia bidezko  
hizkuntza  
transmisioaren  
esparrura  
mugatzen.**

ttoaren ifernuan eror. Hizkuntza integrakuntza beste ezein bezain beharrezkoa dugu (Mitxelena 1978: 25).

Lerroalde horri loturik hasi du Zalbidek bere hausnarketa baina ez dut uste diglosiaren gaineko egungo gogoeta ez metafora horretatik ez eta dilema horretatik ere abiatzea aproposa denik. Alde batetik, *diglosiaren purgatorio soziolinguistiko* metaforak, gaurko balio eta erreferenteetatik urrunxko egoteaz gain, argi baino ilunkara uzten du kontua. Bertze aldetik, *ghettoren ifernua* ala *diglosiaren purgatorioa* hautatu beharrak dilema faltsu baten aitzinean jartzen gaituelakoan nago. Zer dira funtsean dilema horren bi aukerak? Zer nolako *diglosia*? Zeri erraten zaio *ghetto*? 1970eko hamarkadan zerk ote zirudien *handikeriazko mentura*? Mitxelenak ez zigun ez bata, ez bertzea, ez hirugarrena argitu eta ausarta da oso hizkuntzalari handiak buruan zehatz-mehatz zer zuen ondorioztatzea. Anakronismo presentistan erortzeko arriskua du ariketa horrek. Gainera, buru ezin argiagok eginda ere, ez zait iruditzen 1970eko hamarkadako irizpen hori egungo beharren mugatzailatzat har dezakegunik. Izan ere, orain lau hamarkada nork iragar zezakeen berrogei urtetan euskarak zer bide eginen zuen? Ez da atzendu behar garai horretatik aurreikusitakoak euskararen egoera larri-larri jakin batetik egindako pronostiko-proiekzioak direla, oro har Euskal Herrian lau hamarkadaren buruan gizarteak euskarari eman dion lekutik oso urrun geratu direnak.

Hala bada, ekar dezagun gogoia geure gaurko eta hemengo egoerara, hausnar dezagun orain eta hemen nolakoa beharko lukeen euskarak beharrezko duen leku horrek. Euskarak, biziko bada, zer behar du ziurtatua? Zerk izan behar du hizkuntza politikaren eta plangintzaren premia? Zer lehenetsi beharrekoa? Nire ustez, arazo horretan paratu du Zalbidek galde ikurra eta horrexen gainean luzatuko naiz nire iruzkin honetan.

Hizkuntzak bere lekua (bere-berea) behar duela, ados, baina ez dut uste leku hori irudikatu eta eratzeko diglosia kontzeptua ezinbertzekoa zaigunik. Euskarak deus baino lehen belaunez belauneko jarraipena behar du ziurtaturik, horrekin ere ados. Baina, nire irudikotz, hiztun talde bateko belaunaldi bakoitzak kide berriak (ahal den gehienak) bere hizkuntzan sozializatzeko dituen bide-aukerak ez dira familia bidezko hizkuntza transmisioaren esparrura mugatzen, ez eta Fishmanen (1991) *home-family-neighborhood-community* multzora ere, erabilera esparru horiek hizkuntzaren belaunez belauneko jarraipena zurkaizten badute ere. Eskola, zerbitzuak, hedabideak, kultura industriak... horietatik kanpo dagoen hizkuntzak zer aukera du hiztunen adierazpide ohikoa izateari segitzeko? Diglosiaren oinarrian dagoen konpartimentazio hierarkikoa eta

hizkuntza funtzioen irudikapen dikotomikoa arazotsua gertatzen zaizkit orain eta hemen euskarak ezinbertzez behar dituenak zehazteko.

Diglosiak gizarte berean hitz egiten diren hizkuntzen lekuak bertikalki antolatutako erabilera-esparruen banaketa gisa azaltzen du, behetik goiti metatzen den jardun-guneen segida, *Low/High* dikotomiaz adierazi dena: erabilera-esparru informaletatik hasi eta formalidade handiagokoetara doan hurrenkera soziofuntzionala.

Baina euskararen ingurura biltzen ditugun harremanei eta ehuntzen ditugun lotura askotarikoei erreparatuta, nekez jo daitezke operatibotzat diglosiaren kontzeptuaren oinarrian dauden kategoria dikotomikoak (behe/goi, formal/informal, ahozkoa/idatzia...). Ikerketa soziologikoetan dikotomia pareetan eratutako azterketak *continuum*eko azalpenak baino usuagoak eta eraginkorragoak izan dira (Rocher 1990: 254-256). Gure tradizio soziolinguistikoa ere halako kategoria dikotomikoen bidez (euskara/erdara, euskaldunak/erdaldunak, gu/bertzeak, herri/hiri, hemengo/kanpoko...) azaldu dira euskararen eta erderen arteko harremanak (Sánchez Carrión, 1972, 1981; Erize, 1997). Baina gure gizarte konplexuan mintzairaren arteko harremanak aztertzeke baliagarriak al zaizkigu dikotomia paretzat agertutako kategoria horiek? Zalbidek "gure arteko hizkeramoldeek euskal/erdal continuum baten arrastoak" dituztela onartu du baina diglosiaren oinarrian dagoen konpartimentazio soziofuntzionalaren ikusmolde hierarkiko eta dikotomikoa ez du zalantzan jarri.

Demolinguistikoki, oro har, gure elebitasun tasa apal-apala da eta horrek zaildu egiten du mintzairaren erabilera tokibanatzeko edozein planteamendu (Zalbidek *arnasgune* deitzen dituen horietan kontua bertzelakoa bada ere). Erabiltzen ohi ditugun bi hizkuntzen konpartimentazio soziofuntzionala posiblea litzateke gizarte elebiduna balitz, elebiduna portzentaje oso-oso altuan; eta elebidunok hizkuntzen arteko hautua erabilera-esparruka eginen bagenu. Baina ez da hori, urrundik ere, gure egoera. Eskura ditugun hizkuntzekin eratzen ditugun harremanak ez ditugu irmoki eta zorrozki tokibanatzen. Ezin dugu. Zalbideren iritziz, behinola izandako konpartimentazioa galduxe dago: "diglosia tradizionala bere azken honddarretara iritsi da gurean". Baina nolakoa zen diglosia tradizional hori? Gure herri euskaldunetan indarrean egon den hizkuntza-elkarbizitza diglosikoak, euskara erabilera esparru formal eta idatzietatik bazter uzten zuenak ez zituen euskara eta erdara maila berean jartzen. Zereginen banaketa hierarkikoak ondorioak izan zituen hizkuntzetan eta hiztunengan. Gure iragan ez hain urruneko diglosia klasiko horri ez diot nik begi nostalgikoez behatzen. Ez dakit lehenaldi idealizatua ote duen Zalbidek buruan, edo une-gune historiko zehatz-zehatzei baizik ez ote dien erreparatzen.

---

**Diglosiaren oinarrian dagoen konpartimentazio hierarkikoa eta hizkuntza funtzioen irudikapen dikotomikoa arazotsua gertatzen zaizkit orain eta hemen euskarak ezinbertzez behar dituenak zehazteko.**

**Erabiltzen ohi  
ditugun bi  
hizkuntzen  
konpartimentazio  
soziofuntzionala  
posiblea litzateke  
gizarte  
elebiduna balitz,  
elebiduna  
portzentaje oso-  
oso altuan; eta  
elebidunok  
hizkuntzen  
arteko hautua  
erabilera-  
esparruka eginen  
bagenu.**

Bertzalde, Zalbidetik historikoki euskararen bermagarri izan den bereizketa soziofuntzional tradizionala galtzen ari dela dio: “diglosiarik gabe gelditzen ari gara”. Nik aldiz, baieztapen horri zenbait ohar eginen nioke. Izan ere, berreskuratze demolinguistiko nabaria gertatu den hainbat herri-eskualdetan euskarak konpartimentazio soziofuntzional garbiagoa du orain duela berrogei urte baino. Hau da, orain lau hamarkada baino *bereagoak* ditu egun euskarak zenbait erabilera-esparru (etxea, eskola, aisialdia...), nahiz eta bere-bereak ez. Har ditzagun Jose M<sup>a</sup> Sánchez Carrionek (1972) edo Pedro Irizarrek (1973a eta 1973b) zenbait herritan bildu zituzten lekukotasunak eta para ditzagun herri horietako egungo zenbait herritan bildu zituzten egoeren aldean.

Halere, orokorki, bat heldu naiz Zalbiderekin: gurea bezalako hizkuntza tipion erronka belaunaldi berrietako ahal den kiderik gehienak bertako hizkuntzaz sozializatzeko bide-aukerak sendotzea da. Zailtasunak hor daude. Hala bada, lehentasuna hor dugula, euskarak bere-berea behar duen toki hori, nola eratu behar du? Nola bereizi behar du? Non izanen du? Bertikalki irudikatzen dugun gizarte-funtzio segida batean? Irmoki zedarritutako konpartimentazio soziofuntzional batean? Hala planteaturik, bai, purgatorioan bizitzera kondenaturik geundeke.

Baina euskarak bere-berea behar duen leku hori bertzela irudikatuko bagenu? bertikalki antolatzen den funtzio segida orde, euskaldunok geure erdigune eta erreferentzia osoa, geure erdigunekotasun edo zentralitatea atxikiko genukeen harreman sare, zirkuitu, sistema, ibilbide... edo nolnahi eraturako moldea irudikatuko bagenu? Millsek (1959) iradokitzen duen *irudimen soziologikoa* landu beharko genuke, ez ariketa heuristikoa hutsez, hizkuntza plangintzan aritzen garenontzako bidai orri eta iparrorratz beharrez baizik.

Gurea bezalako hizkuntza txiki baten belaunez belauneko jarraipenerako erabilera-esparru edo jardun-gune guztiak ez dira garrantzi berekoak. Batzuetan hizkuntza txikiaren erabilera gizarte-araua bilakatzea funtsezkoa da. Bertze batzuetan hizkuntza txikiak bere toki(txo)a eta aukerak izatea garrantzizkoa da. Eta izan badira jardun-gune batzuk hizkuntza handiaren erabilera gizarte-araua izanda ere, hizkuntza txikiaren jarraipena arriskuan paratzen ez dutenak.

Erabilera-esparru funtsezkoen identifikazioa horietan gertatzen diren harreman edo elkarreraginen maiztasunaren eta estutasunaren arabera egitea proposatuko nuke, eta ez behe/goi, informalitate/formalitate, mintzatua/idatzia dikotomien arabera. Hori horrela, Fishmanen *home-family-neighborhood-community*, etxe-auzo-ingurumen hurbila erabilera-esparrua lehentasunezkoa da, baina bai eta eskola, Zalbiderean *auzogintza* eta ohiko

zerbitzuak ere, tokiko hedabideak barne. Hau da, hiztunek bertze hiztunekiko hizkuntza maizen eta harremanik estuenetan erabiltzen duten esparruak dira euskararen erabilera ahalbidetu, erraztu eta gizarte-araua bilakatzeko premiarik handiena dutenak.

Belaunaldi berrien euskarazko sozializazioak lehentasun osoa du. Ildo horretatik, familia bidezko hizkuntza transmisioari ez ezik haur-gaztetxoek *harreman eszentrikoei* ere arreta berezia eman beharko litzaieke. Harreman eszentrikoak haur-gaztetxoek familia gunetik, hau da, gurasoengandik at beren adinkideekin sortzen dituzten elkarreraginak dira anai-arreben, lehengusu-lehengusinen, ikaskideen, lankideen, lagunen, taldekideen artekoak. Haur-gaztetxoek arteko harremanak garatzen diren esparruetan (eskolan, aisialdian, kultura kontsumoan...) euskaraz aritzeko aukerak bermatu eta, ahal dela, euskaraz jardutea gizarte-araua bilakatzeko berebiziko garrantzia du. Belaunaldi bereko euskaldun gazteen artean euskara aztura bihurtzea, erabilera ohiturak euskaraz ezartzea da gakoa (Kasares 2011). Horietaz gain, euskarak bereak, bete-betean ez bada ere neurri batean bederen, beharko lituzkeen esparruen artean goi mailako irakaskuntza, hedabideak eta zerbitzuak ere izanen genituzke.

Zalbidek proposatzen duen diglosia moldearekin eta *community fostering* delakoarekin (nolabaiteko *herrigintza* litzatekeenarekin), ados. Arazoa ez dugu ezinbertzekoak zaizkigun esparruak definitzean, hizkuntza politikaren eginahaletatik kanpo utz daitezkeenetan baizik. Hau da, zein arlok ez digu kezkarik eman behar erdarak nagusi badira ere? Hizkuntza politikak eta plangintzak zein arlotan ez ditu baliabide eta indarrak xahutu behar? Uko egin behar al diogu unibertsitatean profesional (abokatu, haginlari, maisu-maistra, epaile...) euskaraz prestatzeari? Uko egin behar al diogu TB eta IKTetan euskara erabiltzeko aukeraren bat izateari? Ez dut uste orain eta hemen behar dugun hizkuntza-elkarbizitza moldeak esparru formal guztiei uko egitea ekarri behar digunik.

Nik uste Euskal Herrian soziolinguistikoki ez garela handinahiak izan. Ez dugu *handikeriazko menturak* beroturik jardun. Aski ongi neurtuta dugu geure hizkuntzaren ttipitasuna eta geure xedea ez dugu hizkuntza hipertrofiatuekin nazioarteko lehian ibiltzean paratu. Orain eta hemen aski salbu gaude Mitxelenak ohartarazitako ghettoaren isolamendutik, baina oraindik ez dugu definitu ez adostu euskarari jarraitzea eta indarberritzea bermatuko dion hizkuntza-elkarbizitza moldea. Ez diezaiogun lan horri ekin ordea, hitz zaharrek zamaturik. Hala egungo egoera azaltzeko nola gure premia soziolinguistikoa adierazteko diglosia ez bertze kontzeptu eta formulazio batzuetan sakontzea interesgarriagoa iruditzen zait, erronka berriek hitz berriak merezi dituzte eta. ●

---

**Gure herri euskaldunetan indarrean egonden hizkuntza-elkarbizitza diglosikoak, euskara erabilera esparru formal eta idatzietatik bazter uzten zuenak ez zituen euskara eta erdara maila berean jartzen.**

## **BIBLIOGRAFIA**

- ERIZE, X. (1997). *Nafarroako euskararen historia soziolinguistikoa. 1863–1936. Soziolinguistika historikoa eta hizkuntza gutxituen bizitza*. Iruña: Nafarroako Gobernu.
- FISHMAN, J. (1991/1997). *Reversing Language Shift. Theoretical and Empirical Foundations of Assistance to Threatened Languages*. Clevedon, Philadelphia, Adelaide: Multilingual Matters.
- IRIZAR, P. (1973a). Los dialectos y variedades de la Lengua Vasca. Estudio lingüístico-demográfico. *BRSVAP* 29, 3-78.
- (1973b). Los dialectos y variedades de la lengua vasca. Variedades desaparecidas y variedades amenazadas de rápida extinción. Su evolución en el transcurso de un siglo. *ASJU*, 7. lib.
- KASARES, P. (2011). 20 urteko nafar euskaldun hori. Nafarroako euskararen egoera zenbait gazte euskaldunen bizipenetan. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 76, 101-123.
- MILLS, Ch. W. (1959/1961). *La imaginación sociológica*. México: Fondo de Cultura Económica.
- MITXELENA, K. (1978). Euskararen bide luze bezain malkarrak. *In Euskaltzaindia, Euskararen liburu zuria* (15.-28. or.). Bilbo: Euskaltzaindia.
- ROCHER, G. (1973/1990). *Introducción a la sociología general*. Barcelona: Herder.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M<sup>a</sup> (1972). *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra (1970). Factores de regresión. Relaciones de bilingüismo*. Pamplona: Institución Príncipe de Viana, Diputación Foral de Navarra.
- (1981). La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio Antropolingüístico de una Comunidad Euskaldun. *FLV* 37, 19-99.